

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Miren Aldekoa Gorospe

*Mañaria
Bizkaia (1932)*

Aurkibidea



Biografia



Arrueta auzoko Iturri baserriko alaba. Gurasoak ere Mañarikoak zituen, aita bere jaiotetxe berekoa zen.

Umetatik oso bizimodu gogorra ezagutu eta izan zuen. Lau urte zituela, aita gerrara joan eta ez zen berriro bueltatu. Hori dela-eta, amak etxeko eta kanpoko lanak egiten zebilela, berak bere neba gaixoa zaindu eta etxeko martxa eramaten lagundu behar izaten zuen. Ez zen ia eskolara joan eta lehengusu baten eskola partikularretara joan zen. Baserriko bizimoduarekin lotuta bizi izan da beti. Senarra Dimakoa du.

Zintak

MAN-005

- **Proiektua:** Mañariko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2011-03-04
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k):** Fontecilla, Gontzal

MAN-006

- **Proiektua:** Mañariko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2011-03-04
- **Iraupena:** 27 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

MAN-025

- **Proiektua:** Mañariko grabazio zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez de Audikana, Maria Luisa - Ikobaltzeta, Igone
- **Data:** 2008-08-30
- **Iraupena:** 92 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Ikobaltzeta, Igone

MAN-026

- **Proiektua:** Mañariko grabazio zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez de Audikana, Maria Luisa - Ikobaltzeta, Igone
- **Data:** 2008-08-30
- **Iraupena:** 56 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Ikobaltzeta, Igone

Pasarteak

1. Lau urterekin, aita gerran galdu

- **Erref:** MAN-005/002
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:02:50. **Bukatu:** 00:04:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Alarguntasuna

Laburpena:

Berak lau urte zituela, aita gerran galdu zuen. Oraintxe jakin du Bilbo ondoko Santo Domingon hil zutela. Ama diru-sarrerarik gabe geratu zen alargundu zenean, eta Agrariako hilerokoa ordaintzeko larri ibiltzen zen batzuetan.

Transkripzioa

- Aitte gerra denporan altxau ebean kinttadan eta ez giñun euki geidxau daturik, ointxe arte. Ointxe jakin duaz zelan aitte Santo Domingon hil aben. Hil abien.

- Nungo Santo Domingon?

- Hamentxe, hamentxe, Bilbon edo non da hori santo Domingo? ba hortxe, hortxe. Juliuen hamahiruen, hamaikan. Hamahiruen, hamahiruen, San Antoniño egunien. Nerbiosa nau. San Antoniño egunien zelan hil zan hortxe.

- Oin jakin dozu hori?

- Ontxe jakin dot, ontxe arte ez dot jakin.

- Eta oin arte bapez?

- Ontxe, urtebet ez oniño honantza. Jakin dot zelan hortxe hil zan nire aitta.

- Eta horrek papelak eta sekula ariñau ez zenduzen...?

- Ez, eta nire amak kobretan hasteko ez eukan nire amak sueldorik, berak pagetan aban zera hori, kuota bat, eta hirurogeita bost urteaz haixe ipiñi etsien. Hogeita hamabi urtaz nire ama alargun geratu zan eta ez eban euki sueldorik, iñundik txakur txikirik bez. Berak pagetan abana hirurogeita bost urtegaz hasi ziren, hasi jakozan emoten. Hirurogeita bost urtera arte. Ta haixe pagetako hillien, haixe pagetako ez daitz hogei, hogei pezeta edo holan izeten zan, pezetak, hogei pezeta izeten zan hillien emotie, ezta? kuotie pagetako. Haixe pagetako sarriten dirurik ez ta ba hille bikue hirukue-edo pagetan aban, azkenien pagetan aban, noz o noz pagetan eban. Eta hirurogeita bost urte kunplidu [jakozanien], handik, handixeik toketan zanetik emon, pagetan hasi jakozan. Eta harexegaz bizi izen zan nire ama.

2. Lau urtetatik sukaldari

- **Erref:** MAN-005/004
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:07:03. **Bukatu:** 00:10:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Eskolara ezin izan zen joan, anaia gaixoa zaindu behar zuelako. Bere lehengusu batek ematen zituen eskola partikularrak hartu zituen. Amak etxeko eta baserriko lanak egiten zituen bitartean, Mirenek lau urte zituela aitita zaintzen zuen. Babarrun edo patata lapikoak ere berak zaintzen zituen beheko sutan.</p>

Transkripzioa

- Esan dozu eskolara askorik ez zinela joan baia...
- Zelan joango nintzen ba eskolara? Zainddu ein biher izeten naban-ta. Eskolara gutxi ta gero ibilli nitzen partikularra euki aban nire lehengusu batek, mutil batek ze eskolie emoten aban, ezta? holan partikularrak eta hantxe ibil nitzen apur baten.
- Lehengusue zan maisue?
- Bai, maisue ez zan izen, baia eskola handidxe eukezenak, ta emon. Hak be ez euken dirurik eta ba, apur bat irabaztiarren emoten eitten aban, ezta? Eta hantxe ikesi nebana harexek erakutsi esten niri. Ze eskolara, eskolara ezin juen. Eta harana ba juten nitzen ahal naban orduetan. Eta etxien emoten osten, beran etxien. Ahal nabanetan.
- Behintzet matematikak eta leidu eta..
- Bai, gauza handirik ez, gauza handirik ez.
- Bueno, baia biher dozunerako jakin dozu.
- Bai, neure pasixorako neure pasixorako. Baia gauza handirik eruteko ez, pasixorako ikesi giñun. Besterik ezebez.
- Eta ama ez zan izeten kapaz bakarrik geratuteko nebiegaz?
- Bakarrik zelan geratuko zan ba? Behitxo bi ta, behitxio bi, txahalak-eta, harexek hazi eta harexen diruaz bizi giñien-ta. Amak biher ien ta baserrixen amak biher ein, lau urtaz sinistuko dozu zuk, nik neuk lau urte nekezela aittitte zaintzen, geixue zaintzen, ipintten nindduen ni amak. Eta egon egin biher, beste erremedixorik ez neken-ta. Emoten dostezan umintzako trastiek olgetako eta aittitte zaintzen kuartuen. Ta askok preguntetan dostien: “eta zer eitten dotsezu ba zuk lau urtaz?” ta “ba amari diar ein”. Aittittek esaten osten orduen zeezer biher deuela, ba juen solora, ama dauen lekura, ariñeketan, ta amari esam: “aittittek esan dau etorteko”. Halantxe zaintzen neban nik aittitta. Lehenau babia jaten zan ta porru-patatak, lehena besterik ez egoan, babie ta porru-patatak. Ta amak ipintten dosten baba lapikue. Orduen behien sue be, txaparik-eta be ez, hango denporan, zu ez zenduzen ezetuko igual, baia.
- Galdaiegaz-eta diñozu?
- Galdaiak-eta bai, eta beheko sue, baba lapikue ipinten osten amak han egurrekin ipinitte, ta egurtxuek atzien be bai. Eta esaten osten: “ume, egurrek erreten hasten jakozan orduen, handik eta hemendik hor ipini barriro”, lau urtaz e!, “hor ipini egosi daitten, ta saldie gastatan bajako, ure bota”. Oingo lau urteko umieri esaiozu holako gauzak eitteko.
- Etxie be erre.
- Eta ein ein biher, edo gero jan barik egon biher. Ta ni hantxe, juen ta

astiro-astiro ein eitten neutsen amari, baba lapikoa egosi ta akaso, egunen baten izengo zan txarto egostie be ta, hurrungo bueltan igual larrei egostie be bai. Erre be iguel. Erretan ez neutsen izten. Uregaz zaintzen naban ta botaten notsen. Ta gero patatak sartzeko esaten osten, honen erlojue igertzen be jakin ez. Ta hau erlojue txikidxe, honantxi erlojue, ezta? Ta “hau txikixe hamen dauen orduen eta haundixe hamen dauen orduen, patatak sartu”. Igertzen jakin ez ta, txikixe hamen dauen orduen eta handixe hamen dauen orduen, patatak sartu lapikueri. Eta halantxik, halantxik bizimodue atara. Oingo moduen ez.

3. Neba zaintzen

- **Erref:** MAN-005/006
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:11:21. **Bukatu:** 00:13:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Neba ez zen jolas egiteko gauza, baina auzoko umeeekin egoten zen, Mirenen zaintzapean beti ere. Auzoko umeeekin jolas asko egindakoa da Miren. Abarketa jokoa azaltzen du.</p>

Transkripzioa

- Hori, esan dozu, nebiegaz olgeu eta, baina zertara olgetan zendun?
- E?
- Nebiegaz esan dozu nebie zainddu eta ahal zana beragaz olgeu.
- Olgetan baina olgetan ez zekixen hak. Guk... auzoko umiek eta orduen olgetan abien ezta? ta hantxe egon iguel olgetan ta, hantxe onduen ibiltzen zan bera be, onduen hantxe bueltaka hantxe ibili hantxe bueltaka. Baia iñoiz martxau igual, ze neu be umie nintzen ta. Ta niri martxaten osten /martxateosten/ ordun amak quantia. Baia ba, umie nitzen ta martxau.
- Ia, normal.
- Bai ba entretenidu olgetan, olgetan entretenidu igual eitten giñen, ostantzien ibiltten zan geugaz, geugaz be ibiltten zan, geure artien, hantxe koadrillan ibiltten zan, baia [...] eskapa, ta eskapau ezker ez... eskapau ta neu juen ta neuk eskutik ebatu ezker neugaz be bai, neugaz be etorriko zan, konforme etorten zan neugaz be. Ona zan, ostantzien ona zan. Baia txikixetan amak esaten aban /esateaban/, ni txikixue nintzela, txikixuten, surteko zera su hartu ta igual oge ganera ta [...]. Orduen, orduen ni txikixue nintzen ta... berak be txikitten eitten ebazen /eittebazen/ horrek ezta? Urte bixen aldie eduki giñun ta. Askok, asko [...] giñun guk, asko, asko.
- Eta auzoko umiekaz olgetan zenduen ezta? Zetara?
- Ondo, auzokokin danakin ondo erun neban nik. Danakin ondo.
- Neska eta mutil?
- Neska ta mutil, neska ta mutil. Ta Gabonetan barrez etxe bat eukitten giñun, danak haraxe juntetan giñen, afaldu ostien ta gau guztixe pasetan giñun hantxe. Oin moduen barik beste modu baten olgetan giñun guk.
- Zelan, zetara olgetan zenduen?
- Zetan olgetan, edozetan, abarketa jokue ta, bakizu zertzuk direzan?
- Ez

- Ba zer esango dotsut? Danak holan korbilluen plantau ta erdixen abarketadune bat "con prior" ta handi azpitti bueltan abarketie, azpitti bueltan, ta harrapetan botsen han "con prior", lepokuek, trapa-trapa-trapa lepoti ziher emon. Holantxe olgetan gendun guk. Gero azkenien goixaldien txokolatadie ta, holantxik. Oingo moduen ez zan lehenau ixeten.

4. Basora ira ebakitzera

- **Erref:** MAN-005/007
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:13:34. **Bukatu:** 00:16:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Miren gaztetan bakar-bakarrik joaten zen basora ira ebakitzera. Ira behien azpitarako erabiltzen zuten, han sats bihurtu ostean soroan zabaltzeko.</p>

Transkripzioa

- Lehenago, gazte-gaztetatik jueten nintzen ni basora ira ebaten be. Irie badakizu zer dan?

- Bai.

- Jakingo dozu. Ba ira ebaten, bakar-bakarrik. Bakarrik.

- Han inguruko basotara?

- Hombre, iguel etxetik ordubeteko bidien. Oingo moduko gauzaik ez eguen orduen, orduen trakil juten zan. Auzuek be jueten zien, auzu aldamenetara ta, trankillo.

- Ta ze joaten ziñen burdixegaz?

- Bai, burdixagaz /burdixaz/. Ordun burdixagaz. Oin badaoz traktorak eta gauza asko, baina ordun burdixagaz, behixekin ta bidiek be txarrak. Oin bidiek be onak dao. Ba bidiek be txarrak eta... hantxe, ahal dan moduen.

- Ta irie zelan batzen zendun?

- Eskoo... zeragaz, eskobilliegaz, zeragaz.

- Eskobariaz?

- Eskobariaz batzen giñun. Batu ta egin pilluen ta kargatu ta... Seirek arte bihar egin gizonak Izurtzan eta hara etorri ta, guk eruan hara burdixe ta han kargeu ta barriro etxera ta... ene!

- Ta irie zetako?

- E?

- Zetako ibiltten zenduen gero?

- Irie? [---] azpixe egiteko. Gabetan, gabetan edo lohie edukin orduen behixei azpixe egin biher jakien /bijakien/ haregaz lo egiteko.

- Kortarako.

- Kortarako. Haregaz gero basuen iminten zan satsa, solorako,

- Behien ganie zer zan ba, zan porlanezkoa edo?

- Oin bai, oin gero porlanezkue. Baia lehenengotan porlanik ez. Lurre. Lurre lehenau, gero guk ipini giñun porlana ezta? Ta gero porlana gitxiau biher ebazan /biherbezan/, ze txizek eta zerak korridu egiten aban bai, korridu egiten aban dana. Ba oin, gero, zementu bota geuntson eta gero hobetu, gero hobetu...

- Ta azpixek egiteko...

- Azpixek egiteko iria.

- Ta horregaz gero satsa esan dozu?
- Gero satsa [...] han bustitten zan... pillora bota ezta? Han pilluen egiten zan satsa. Satsa solorakue, solorako. Soluen gero... soluen zabaltzen zan.
- Bai zabaltzeo.
- Soluen bai, holantxi.
- Eta gero irie barik, geroko satsa zelan egiten zenduen?
- Gero ez giñun egiten satsik. Gero serriñe ta iñoz ekarri, gutxiau bihar izeten zan ha, ze idie bota ezker zementuen korridu egiten otsien ba, idiek. Ta zera bota ezker, pinurrixek eta bota ezker [...] geixau, hobeto, behixek aguantetan abien. Oin idie eurentzako hobiaue, beruaue negureko.

5. Baserriko bizimodua asko aldatu da

- **Erref:** MAN-005/008
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:16:11. **Bukatu:** 00:17:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Baserriko bizimodua asko aldatu da Mirenen gazte denboratik. Orduko jatorduak aipatzen ditu.

6. Eibarrera Mañariko gereziak saltzera

- **Erref:** MAN-005/009
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:17:57. **Bukatu:** 00:20:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Eibarko plazara joaten zen Mañariko gereziak saltzera. Esnedunaren kamioian joaten zen Eibarrera. Gogoan du behin Eibartik 600 pezeta ekarri zizkiola amari, eta zelako poza hartu zuen honek.</p>

7. Beharrezko gauzetarako dirurik ez

- **Erref:** MAN-005/010
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:20:48. **Bukatu:** 00:22:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Arropa berriak, olio eta holakoak erosteko dirua lortzea ez zen erraza izaten. Urte guztirako lain gari ez zuten etxean hartzen, eta erosi egin behar izaten zuten.</p>

8. Untxia edo oilaskoa igandetan bakarrik

- **Erref:** MAN-005/011
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:22:38. **Bukatu:** 00:24:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Esnea nahiko izaten zuten etxean, saltzeko sobra handirik gabe. Igandetan-edo untxiren bat edo okela jaten zuten. Hazten zituzten oilaskoak etxean jateko izaten ziren. Emakume arrain-saltzaile bat joaten zen baserrietara arraina buruan zeramala. Janariak lortzeko ez zuten trukerik egiten.

9. Amak labesua egiten zuen

- **Erref:** MAN-005/012
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:24:55. **Bukatu:** 00:27:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Taloa, artoa eta morokila egiten zituzten. Mañariko errotan ehotzen zuten alea. Bera joaten zen astoarekin errotara. Amak labesua egiten zuen etxean. Ogia nola egiten zuen azaltzen du, eta labearen ondoan opilen zain nola egoten zen ere bai.</p>

10. Gozoak, turroia eta txokolatea

- **Erref:** MAN-005/013
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:27:27. **Bukatu:** 00:29:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Oinetako kutxa bat molde bezala erabilita, amak Gabonetan pastela egiten zuen labesuan. Noizbait turroia ere ekarri omen zuen amak. Txokolatea gutxitan jaten zuen.

11. Gabon eguneko bazkaria

- **Erref:** MAN-005/014
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:29:33. **Bukatu:** 00:32:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>Gabon egunean, azalorea eta bisigua jaten zuten beti. Osaba mutilzaharra eta amama ere bazkaltzera etortzen ziren. Postrea pastela, intxaur-saltsa edo sagar-konpota izaten zen. Izekok prestatutako barraskiloak jaten zituen Mirenek. Etxeko patinetik esku-bonbaz ura ateratzen zuten.</p>

12. Arropa garbitzera erre kara

- **Erref:** MAN-005/015
- **Iraupena:** 0:04:11. **Hasi:** 00:32:15. **Bukatu:** 00:36:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Arropa zikinen baldea buruan jarrita urrutira joan behar izaten zuen garbitzera. Izarak asto gainean eramaten zituen. Etxean eskuz garbitu eta astintzera erre kara eramaten zituen. "Chimbo" xaboia zen garbitzeko onena. Lixiba ontzian sutako hautsa eta ereinotzarekin lixiba egiten ezagutu zuen umetan. Kirruzko izara gogorrek ere gogoratzen ditu.

13. Ereinotza arropen usain ona emateko

- **Erref:** MAN-005/016
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:36:26. **Bukatu:** 00:39:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Izarei usain ona emateko, lixiban ereinotza erabiltzen zuten. Umeen arropen usain ona emateko ere erabiltzen zen ereinotza. Arropak garbitu eta gero eseki egiten ziren lehortzeko. Euria bazen ganbaran esekitzen zituzten. Oheko arropak ez, baina alkandorak-eta lisatzen ziren. Ikatz txingarrarekin edo txapa gainean berotutako plantxekin lisatzen zuten arropa.

14. Argindarra eta ura etxean

- **Erref:** MAN-005/017
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:39:38. **Bukatu:** 00:42:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Argindarra Miren jaio zen urtean jarri zuten etxean. Ordura arte kandela edo karburoarekin konpontzen ziren. Ezkondu eta gero jarri zuten Iberduerorena. Etxe barruan ura ere ezkondu eta gero jarri zuten. Urarena oso aurrerapen handitzat jotzen du Mirenek.

15. Etxeko garbiketak

- **Erref:** MAN-005/018
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:42:19. **Bukatu:** 00:44:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Etxeko zoruak erratzez garbitzen ziren, eta oholezkoak belauniko trapuarekin. "Itxuskixe" (Mañarian), "eskobie" edo "iñarrie" (Arratian), erratzaren izenak Bizkaian.

16. Komuna etxetik kanpo; garbitzera erre kara

- **Erref:** MAN-005/019
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:44:12. **Bukatu:** 00:46:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Gazte-gaztetan egin zuen laian lehen aldiz Mirenek. Lau lagun ilaran jarrita jarduten zuten laian. Geroago golde txiki bat erosi zuten. Gaztetan, komuna etxetik kanpo zegoen. Eguraldi txarrarekin kortan egiten ziren komuneko lanak. Norbera garbitzeko erre kara joaten zen, xaboia eta eskuoihala hartuta.

17. Hilerokoaren berri lagunengandik jaso

- **Erref:** MAN-005/020
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:46:26. **Bukatu:** 00:48:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Hilerokoarentzako trapu batzuk izaten zituzten, lixibatan garbitzen zirenak eta hurrengo hilerako gorde. Hilerokoaren berri ez zion amak eman. Lagun zaharragoengandik jakin zuen horren berri. Hilerokoa etorri zitzaionean, amari esateko beldurrez egon zen.

18. Hilerokoaren minentzat adreilu beroa jarri

- **Erref:** MAN-005/021
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:48:33. **Bukatu:** 00:51:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Hileroko minkorrak izaten zituen. Adreilu beroa jarrita lasaitzen zitzaion mina.

19. Hilerokoarekin txorizorik ezin egin

- **Erref:** MAN-005/022
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:51:19. **Bukatu:** 00:52:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

<p>Hilerokoarekin zeudenean txorizoak eginez gero, txarrak irteten zuten. Eskularruak janzten zituzten halako kasuetan. Txorizoak eta odolkiak egitea oso gustuko zuen Mirenek.</p>

20. Odolkiak nola egiten zituen

- **Erref:** MAN-005/023
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:52:42. **Bukatu:** 00:55:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

<p>Odolkien osagaiak zeintzuk ziren eta odolkiok egiteko era azaltzen du. Txorizoak betetzeko makina aurrerapen handia izan zen. Odolkiak arin 'urdintzen' (hondatzen) omen dira.</p>

21. Goldea, area eta markoa; ganadu-jatekoak

- **Erref:** MAN-005/024
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:55:16. **Bukatu:** 00:57:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Soroan goldearen ondoren area pasatzen zen, lurra ereintzarako prestatzeko. Gero markoa pasatzen zen, hazia ereiteko lerroak markatzeko. Soroko lanak bukatu eta ganaduak gobernatu behar ziren, segaz edo igitaiz belarra ebakiaz. Ganaduak errebelarra ez zuen jaten. Arbia, erremolatxa edo kuia zatituta ere jaten zuen ganaduak.

22. Gerezi sasoiko lanak

- **Erref:** MAN-005/026
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:58:37. **Bukatu:** 01:00:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Gereziak denbora gutxian heltzen dira denak, eta azkar ibili behar ziren batu eta saltzeko arrak hondatu baino lehenago. Txoriek gerezi asko jaten zituzten. Orduan ez zituzten gereziak inauten, eta zuhaitz handiak egiten ziren.

23. Ilargiaren eragina

- **Erref:** MAN-005/027
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 01:00:33. **Bukatu:** 01:02:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Abere-hiltzea
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

<p>Txerria hil eta txorizo eta odolkiak egitea ilbeheran egin beharreko lanak dira. Ilea ebakitzea ere ilbeheran egitea hobe omen da. Ilberrian ebakiz gero, katarroa harrapatzeko arrisku gehiago omen dago.</p>

24. Osabari artzain lanean laguntzen

- **Erref:** MAN-025/009
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:12:59. **Bukatu:** 00:15:51
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserría » Baserríko lanak » Artzaintza
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Eskolara neguan joaten zen Miren, baina gutxi. Umetatik osabarengana joaten zen artzain lanean laguntzera. Landaluzekoak ziren izatez ama eta osaba eta ardiak hara eramaten laguntzen zion. Eguerdian zerbait jan eta iluntzera arte ezer ez. Berandu baten iristen zen etxera. Emakume batek txokolatea eta ogia ematen zizkion eta bera ardiak hara eramateko zain egoten zen. Bizimodua nola aldatu den.

25. Domekero erromeria Mañarian; ordurako etxera itzuli behar

- **Erref:** MAN-025/010
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:15:51. **Bukatu:** 00:18:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Erromeriara abarketekin. Garesti irteten zitzaien, dantzan apurtu egiten zituzten eta. Domekarako txukun ipini, puntak ebakita. Etxera itzultzeko ordua izaten zuen Mirenek: neguan zortzietan eta udan hamarretan. 13 urterekin hasi zen. Domeka guztietan egoten zen erromeria Mañarian. Soinujoleak. Ordurako etxera joan ezean, zigorra: goizeko seietarako igitaiarekin belarra ebakitzera.

26. Garai bateko erromeriak alaiagoak

- **Erref:** MAN-025/011
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:18:25. **Bukatu:** 00:20:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Bizimodua nola aldatu den. Lehengo erromeriak alaiagoak, dantza gehiago egiten zen eta. Inguruetako jendea etortzen zen. Izurtzan jaietan bakarrik egoten zen erromeria. Lehengo plaza, lurrezkoa.

27. Mutilek ordaindu egin behar dantza egitearren

- **Erref:** MAN-025/012
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:20:36. **Bukatu:** 00:21:41
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Soinujoleek laguna ekartzen zuten, dirua kobratzeko. Mutilek ordaindu behar izaten zuten, dantza egiteagatik. Pezeta bat izaten ote zen. Behin ordaindu eta arratsaldea dantzan pasatzeko aukera.

28. Mañariko eskola zaharrak

- **Erref:** MAN-025/017
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:58:20. **Bukatu:** 01:01:32

- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Garai bateko eskola zaharrak. Neskak eta mutilak aparte ibiltzen ziren. Eskola azpian korta. Hotza sartzen zen arrakaletatik; berogailua. Tabernara nondik sartzen zen. Maria Angelesen sasoian esnea ematen zieten eskolan. Maria Angelesek berari gazta eta ogia ematen zizkiotela kontatzen du. Etxean ez zuten askorik izaten eta pozik.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com